ONDARROAKO UDALA
Bizkaia

BALDINTZA TEKNIKOAK

EUSKARA PRAKTIKATZEKO BERBALAGUN ZERBITZUA EMATEKO

Espte zkia: 2026-44
Kontratu-mota: Zerbitzua
Kontratuaren xedea: BERBALAGUN ZERBITZUA
Kontratatzeko prozedura: Irekia Super-sinplifikatua
Kontratuaren arduraduna: Udal euskara teknikaria

0. SARRERA

Berbalaguna euskara praktikatzeko programa bat da eta horri esker, euskaraz hitz egiteko ohitura duten pertsonak euskaraz hitz egiteko ohiturarik ez dutenekin elkartzen dira eta elkarren artean osatzen dituzten berba-taldeetan parte-hartzen dute.

Ondarroako Udalak euskara sustatzeko plan estrategiko guztietan jaso du horren beharrizana. Udalak, AROA marko estrategikoaren baitan, erronka hau jaso du 2025ean eta 2026an: EG.2. Euskara irakatsi eta ikasteko aukerak indartu eta berriak sortu.

Berbalaguna programa 2006an eskaini zen Ondarroan, estreinakoz. Orduz geroztik, urterik urte, mantendu da.

1. **KONTRATAZIOAREN XEDEA**

Kontratazio honen xedea da euskara praktikatzeko programak antolatu eta gauzatzea Ondarroako 16 urtetik gorako bizilagunentzat.

2. ZERBITZUAREN EZAUGARRIAK

Berbalagun edo Mintzalagun izenez ezagutzen diren programek ez dute zerikusirik euskara eskolekin: eskolek ezagutza dute helburu eta mintzapraktikak, ostera, erabilera eta, horrekin batera, inguru euskaldunera barneratzea.

Zerbitzua ikasturteko egutegiaren arabera emango da, irailean hasi eta ekainean amaitu. Ez da zerbitzurik emango udako hilabete hauetan: uztaila eta abuztuan.

Zerbitzuaren barruan sartzen dira jarduera guztiak antolatu, sustatu, zuzendu eta gauzatzeko betebeharra, ezaugarri hauen arabera:

- **Eginkizun nagusia**: euskararen ahozko erabilera sustatzea eta euskara praktikatzea egoera informaletan. Bidelagunen egitekoa ez da sekula izango euskara irakasle izatea.
  Eskaera balego, Gurasolagun, Ostalarilagun... eta gisa horretako eskaintza espezifikoa sortzea.

- **Koordinazioa eragileekin:** herriko euskaltegiarekin eta herriko beste elkarteekin koordinatzea.
- **Hartzaileak**: euskara praktikatu nahi duten Ondarroako herritarrak, 16 urtetik gorakoak.
- **Partehartzaile-kopurua**: 10 lagunek parte hartu beharko dute, gutxienez.
- **Izen-ematea**: izena emateko kanpaina ikasturte hasierarekin batera egingo bada ere, zerbitzuaren ezaugarriengatik, ikasturte osoan zehar egongo da aukera izena emateko.
- **Taldeak nola osatu**: Aintzat hartuko dira parte-hartzaileen euskara maila, interesak eta afizioak, eta horren arabera osatuko dira taldeak, hirukoteak nahiz bikoteak.
- **Komunikazioa**: komunikazio-kanpainak egingo dira bai izena emateko bai antolatutako ekintzen berri emateko; era honetara egin ere:
  - Publizitatea adjudikaziodunaren esku geratuko da eta erabilitako euskarri guztietan Ondarroako Udala antolatzaile moduan agertu behar da.
  - Komunikazio-ekintza guztiak, adjudikaziodunak bere bitartekoak erabilita zabalduko baditu ere, udaleko komunikazio bulego honetara bidaliko dira: komunikazioa@ondarroa.eus
    Komunikazio-ekintza moduan hartuko dira aurkezpen-saioak eta ikasturte amaierako ekitaldiak egitea.
    Ekitaldiei (tailer, irteera, hitzaldi eta gisa horretakoak) buruzko informazioa aurretiaz zabalduko da programako parte-hartzaileek zein interesa duten herritarrek aukera izan dezaten parte hartzeko. Ekitaldiak Ondarroan egin behar badira, udal instalazioak erabili daitezke, aldez aurretik baimena dagokion moduan eskatuta.
- **Ekintza osagarriak**: Adjudikaziodunaren ardura da ekintza hauek antolatzea: ikasturte hasierako aurkezpen-ekitaldia, ikasturte amaierako ekitaldi bat eta Mintzodromoa.
- **Zerbitzuaren jarraipena**:
  - Esleipendunak egingo du taldeen jarraipena: parte-hartzaileak, noiz elkartzen diren, bajak, gorabeherak, asebetetzearen neurketa…
  - Zerbitzua gauzatu ahala bilerak egingo dira udalarekin, gutxienez, hiru hilabetetik behin.
- **Dokumentazioa**: Ikasturte hasierako proposamena eta ikasturte amaierako memoria.
  Memoriaren edukiak:
  - Talde-banaketa eta osaera eta lagun-kopurua, maiztasuna eta lekuak adieraziz.
  - Parte-hartzaileen datuak: izen-abizenak, sexua, adina, helbidea eta telefonoa/posta elektronikoa.
  - Ikasturtean izandako izen-emateak eta baja-kopurua.
  - Ekintza osagarriak: egutegia, lekua eta partaide-kopurua.
  - Kronogramako fase bakoitzeko ordu-kopurua.
  - Dokumentazio grafikoa: kartelak, sare sozialetako deiak eta Berbalaguneko partehartzaileekin ateratako argazkiak.
  - Helburuen betetze-maila eta hurrengo ikasturteetarako proposamenak. Asebetetze inkesten emaitzak.

- **3. EGUTEGIA ETA KRONOGRAMA**

Zerbitzua ikasturtearekin batera garatuko da, hau da, irailetik ekainera, uztailean eta abuztuan, ostera, eten egingo da.

Ekintzak	**Egutegia** (ikasturteko hilabeteka)									
	I	U	A	A	U	O	M	A	M	E
IZEN-EMATE KANPAINAK										
Kartelak zabaldu										
Prentsara eta sare sozialetara zabaldu										
PARTAIDEAK ETA TALDEAK										
Izenak jaso eta deitu										
Taldeak sortu, lehen hitzordua, argibideak										
Partaideen asebetetzea neurtu										
FUNTZIONAMENDUA										
Jarraipen bilerak udalarekin										
Ikasturteko memoria idatzi eta aurkeztu										
EKINTZA OSAGARRIAK / KOMUNIKAZIOA										
Ekintzen egutegia adostu jarraipen batzordean										
Ekintzen berri sare sozialetara eta hedabideetara										

4. GIZA BALIABIDEAK ETA EGINKIZUNAK

Honako profila duen lantaldea behar:
- Unibertsitate titulua: gutxienez, diplomatura edo gradu-titulua.
- Euskararen gaitasun-maila: Europako Erreferentzia Markoaren C1edo baliokidea.
- Glotodidaktikan eta soziolinguistika gaietan prestakuntza egiaztatua.
- Euskaltegi homologatuetan irakaskuntza-eskarmentua.

5. AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Oinarri pedagogikoa eta bitartekoak: oinarrizko metodologia propioa izatea, bulego propioa izatea eta ikasgela birtuala eskaini ahal izatea.
Programari buruzkoak: Berbalagun programa edo gisa horretako programaren bat eskaini izana edozein udalerritan.
Atxikituko den profesionalari buruzkoak: Europako Erreferentzia Markoaren C2 titulua edo baliokidea. Glotodidaktika edo hizkuntza normalizazio gaietan egindako prestakuntza, gutxienez, 200 ordukoa. Aisialdi eta talde dinamikekin erlazionatutako prestakuntza egin izana, gutxienez, 50 ordukoa; azken kasu bi horietan ordu-kopurua adierazita.

Ondarroan, sinadura digitaleko egunean

Maite Rey - Udal euskara teknikaria